

4870

AGINDUA, 2008ko uztailaren 29koa, Garraio eta Herri Lan sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan bizikleta-bideak eraikitzekeo laguntza-programa bat ezartzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Garraio eta Herri Lan Sailak, gizartean klima-aldaketaren kontra egiten ari den ahaleginarekin bat egin du, eta horrekin koherente izateko, Euskadiko garraioaren antolamenduren arduradun izanik, garraio iraunkorreko sistema bat lortzeko bidean aurrera egiteko balioko duten erabakiak hartzen ahalegintzen da. Alde horretatik, bizikleta-bideen eraikuntzaren sustapena motorrik gabeko garraiobide baten erabilera errazteko era gisa har daiteke.

Bizikleta-bideak eraikitzeak udalerrietan mugikortasun-eredu iraunkorrak sortzen laguntzen du, ondorio hauek baitaizka: Baliabide natural eta ekonomiko (energia eta materia) gutxiago erabiltzen da; negutegi-efektuko gas gutxiago isurtzen da, batez ere, CO₂; udalerrri barruan zarata-maila murriztu egiten da; bideazpiegiturek espazio natural gutxiago okupatzen dute; eta erabiltzaileen osasuna ere hobetu egiten da.

Laguntzak Euskal Autonomia Erkidegoko udal, mankomunitate eta beste toki-erakunde batzuentzat izango dira, kasuan kasuko Toki Agenda 21etako ekintza-planetan jasotako bizikleta-bideak eraikitzekeo proiektuak gauzatzeko. Toki-erakundeen jarduna oso garrantzitsua da garapen iraunkorra sustatzeko estrategian, eta horregatik, oso egokia da Toki Agenda 21ak, zehazki bizikleta-bideen eraikuntzari dagokionean, praktikan jartzen laguntzea.

Laguntza-programa bat dator Euskadiko Garraio Iraunkorraren Gidaplanean jasotako helburu, estrategia eta ekintza-lerroekin, garraio iraunkorra lortzen laguntzeko duen aldetik. Beraz, esan daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak garraiobide iraunkorrak eta garbiagoak sustatzeko duen helburuaren barruan sartzen dela jarduketara hau, bizikletaren erabilera bultzatzeko beharrezkoa den azpiegitura eraikitzekeo erraztasunak ematen dituen aldetik. Gainera, Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen-Estrategiak (2002-2020) berariaz aipatzen du motorrik gabeko garraiobideak sustatu behar direla, eta ingurumenarekiko errespetu handiagoa erakusten duten garraiobide horientzat behar diren azpiegiturretan egin beharreko inbertsioei lehentasuna eman behar zaiela azpimarratzen du.

4870

ORDEN de 29 de julio de 2008, de la Consejera de Transportes y Obras Públicas, por la que se establece un programa de ayudas para la construcción de carriles bici en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Departamento de Transportes y Obras Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en su compromiso con el esfuerzo emprendido por la sociedad contra el Cambio Climático, apuesta por que el conjunto de sus actividades sea coherente, de modo que sus decisiones, como responsable de la ordenación del transporte de Euskadi, contribuyan a avanzar hacia la consecución de un Sistema de Transporte Sostenible. En este marco puede comprenderse el fomento de la construcción de carriles-bici para facilitar el uso de esta modalidad de transporte no motorizado.

La construcción de carriles-bici contribuye a generar un modelo de movilidad más sostenible en los municipios, con los siguientes efectos: un menor uso de recursos naturales y económicos (energía y materia); una reducción en la emisión de gases invernadero, especialmente CO₂; una mejoría en los niveles de ruido en el municipio; una menor ocupación del espacio natural por infraestructuras viarias; y la mejora en la salud de los usuarios.

Los apoyos van dirigidos a los Ayuntamientos, Mancomunidades y otras entidades locales de la Comunidad Autónoma Vasca para la realización de proyectos de construcción de carriles-bici recogidos en los Planes de Acción de sus Agendas Locales 21 municipales. Es imprescindible destacar la relevancia de la actuación de las administraciones locales en la estrategia de promoción del desarrollo sostenible y por ello se considera adecuado apoyarles en la puesta en práctica de sus Agendas Locales 21 en el ámbito concreto de la construcción de carriles-bici.

Este programa de apoyos es consecuente con los objetivos, estrategias y líneas de actuación del Plan Director del Transporte Sostenible de Euskadi, en el sentido de avanzar hacia la consecución de un Transporte Sostenible. Por lo tanto es una actuación que se enmarca dentro de los objetivos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco de fomento de los modos de transporte más sostenibles y menos contaminantes, mediante la construcción de carriles-bici que potencien el uso de esta modalidad de transporte facilitando la infraestructura necesaria para ello. Del mismo modo la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible 2002-2020 hace mención expresa a la potenciación de los transportes no motorizados, además de hacer hincapié en la necesidad de dar prioridad a la inversión en infraestructuras para estos modos de transporte más respetuosos con el medioambiente.

Era berean Europar Batasunaren Garraioaren Liburu Zuriak, «Europaren garraioari buruzko politika, 2010-era arte» ezartzen du lehentasuna eman behar zaiela garraibide iraunkor eta garbiagoei, eta bizikleta horien artean dago.

Horiek horrela, Garraio eta Herri Lan Sailari iruditzen zaio bizikleta-bideak eraikitzeke laguntza-programa bat ezarri behar dela, horiek ezartzea onuradunentzat hain garesti gerta ez dadin.

Ondorioz, Garraio eta Herri Lan Sailaren egitura organikoa eta egitekoak finkatzen dituen urtarilaren 15eko 20/2002 Dekretuaren 4.1. artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren (Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenaren) VI. titulua eta VII. tituluko II. eta III. kapituluak eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ordaindu beharreko laguntza eta dirulaguntzei aplikatu beharreko gainontzeko xedapenak kontuan izanik,

EBATZI DUT:

1. artikulua.— Laguntzen xedea eta diru-kopurua.

1.— Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko udal, mankomunitate eta beste toki-erakunde batzuentzako laguntzak 2008an nola eman arautzea, zehazki:

a) Udal edo udalez gaindiko Toki Agenda 21etako ekintza-planetan jasotako bizikleta-bideak eraikitzeke proiektuak idaztea, 2008an onartzekotan.

b) Udal edo udalez gaindiko Toki Agenda 21etako ekintza-planetan jasotako bizikleta-bideak eraikitzeke proiektuak gauzatzea, 2008an hastekotan eta 2009ko abenduaren 31 baino lehen bukatzekotan.

2.— Agindu honetan aurreikusitako laguntzak emateko bi milioi (2.000.000,00) euroko diru kopurua baliatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horretarako izendatutako kontu-sailetatik hartuta.

Baliteke, eskatutako laguntzen zenbatekoaren arabe-ra, diru-kopuru hori aurrerago handitzea; baina egitekotan dirulaguntzak esleitzeko prozedura amaitu aurretik egin behar da, eta ezinbestekoa izango da, Garraio eta Herri Lan Sailaren beste programa batzuetan gauzatutakoen ondorioz, kreditu lotetsietan dirua erabiltzeko moduan izatea edo aurrekontuetan aldaketak onartzea. Halakorik izanez gero, Garraio zuzendariaren Ebazpenaren bidez emango da horren berri.

Asimismo el Libro Blanco del Transporte de la Comisión Europea: La Política Europea de Transporte de cara a 2010, establece como prioridad la de promover los modos de transporte más sostenibles y menos contaminantes, entre los que se incluye la bicicleta.

Por todo ello el Departamento de Transportes y Obras Públicas estima adecuado establecer un programa de ayudas económicas a la construcción de carriles bici, con el fin de que la referida implantación sea lo menos gravosa posible para los beneficiarios.

En su virtud y en ejercicio de la competencia que me atribuye el artículo 4.1 del Decreto 20/2002, de 15 de enero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Transportes y Obras Públicas, puesto en relación con el Título VI y los capítulos II y III del Título VII del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y con las demás disposiciones aplicables a las ayudas y subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi,

RESUELVO:

Artículo 1.— Objeto y dotación económica.

1.— La presente Orden tiene por objeto regular la concesión de ayudas en el año 2008 a los Ayuntamientos, Mancomunidades y otros entes locales de la Comunidad Autónoma Vasca, para:

a) La redacción de proyectos de construcción de carriles-bici recogidos en los Planes de Acción de sus Agendas Locales 21 municipales o supramunicipales, aprobados en el año 2008.

b) La ejecución de proyectos de construcción de carriles-bici recogidos en los Planes de Acción de sus Agendas Locales 21 municipales o supramunicipales, que deberán haberse iniciado o iniciarse en el ejercicio 2008 y quedar finalizados con anterioridad al 31 de diciembre de 2009.

2.— Para la financiación de las ayudas previstas en la presente Orden se destina la cantidad de dos millones (2.000.000,00) de euros que proceden de las correspondientes partidas consignadas en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El importe global expresado podrá ser incrementado, siempre con anterioridad a la resolución del procedimiento de adjudicación de las subvenciones, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de la vinculación presupuestaria existente, de las disponibilidades presupuestarias que resulten de la ejecución de otros programas del Departamento de Transportes y Obras Públicas, o de la aprobación de modificaciones presupuestarias. De producirse dicha circunstancia se dará publicidad de la misma mediante Resolución de la Directora de Transportes.

2. artikulua.– Onuradunak.

1.– Agindu honetan araututako laguntzak Euskal Autonomia Erkidegoan Toki Agenda 21 onartua duten udalek eskatu ahal izango dituzte.

Era berean mankomunitate eta beste toki-erakunde batzuek ere eskatu ahal izango dituzte laguntzak, baldin eta udalez gaindikoki Toki Agenda 21ean sartutako proiekturen bat gauzatzeko bada.

2.– Onuradun bakoitzeko bizikleta-bidea eraikitzeko proiektu bakar bat idazteko edo-eta gauzatzeko soilik emango da laguntza.

3. artikulua.– Eskabideak eta agiriak.

1.– Agindu honetan jasotako laguntzak eskuratzeko eskabideak idatziz aurkeztu beharko dira, eranskinean datorren eredia hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administraziooko Garraio Zuzendaritzan, Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1ean (01010), edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein eratan.

2.– Eskabideak aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, Agindu honek ondorioak sortzen dituenetik aurrera kontatzen hasita.

3.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak eskuratzeko, eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira (jatorrizkoa edo jatorrizkoaren kopia bat aurkeztu ahal izango da, baina kopia aurkeztuz gero, organo aginpidedunak egiaztatua beharko du):

a) Toki-erakundeko organo eskudunak sinatutako eskaera, diruz laguntzeko eskatzen den jarduketa egiteari buruzko erabakia eta toki-erakundeak jarduketa finantzatzeko zenbat jarriko duen jasotzen duena.

b) Toki-erakundeko organo eskudunak egindako ziurtagiria, helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza edo diru-sarrerarik eskatu edo lortu den ala ez, eta, lortu bada, zenbat jaso den, zehazten duena.

c) Toki-erakundeko organo eskudunak egindako ziurtagiria, garbi adierazten duena, entitate lokal horrek ez duela dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko debekurik, ez eta zigorrik, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen Azken Xedapenetan Seigarrenean jasotako barne.

d) Udalbatzak Toki Agenda 21eko ekintza plana onartu duela egiaztatzen duen agiria.

e) Aurrekontu zehatza, diru-sarrera eta gastuen xehetasunak jasoko dituen.

f) Azalpen-memoria, gutxienez honako hauek jasoko dituen:

– Ekintzaren izenburua.

Artículo 2.– Personas beneficiarias.

1.– Podrán ser beneficiarios de las ayudas reguladas en la presente Orden los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma Vasca que tengan aprobada la Agenda Local 21.

Asimismo podrán ser también beneficiarias las Mancomunidades y otros entes locales cuando soliciten la ayuda para realizar proyectos de carácter supramunicipal que estén incluidos en las Agendas Locales 21.

2.– Únicamente será subvencionable la redacción y/o la ejecución de un proyecto de construcción de carriles-bici por beneficiario.

Artículo 3.– Solicitudes y documentación.

1.– Las solicitudes para acogerse a las ayudas contempladas en la presente Orden se presentarán por escrito, de conformidad con el modelo que figura como anexo, en la Dirección de Transportes de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, sita en c/ Donostia-San Sebastián, 1, 01010 de Vitoria-Gasteiz o bien a través de cualquiera de las formas previstas en el artículo 38, apartado 4, de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– El plazo de presentación de solicitudes será de dos meses contados a partir de que surta efectos esta Orden.

3.– Para acogerse a las ayudas reguladas en la presente Orden, junto con la solicitud, deberá presentarse la siguiente documentación, bien mediante originales, bien mediante copias de la misma, en cuyo caso deberá hallarse compulsada por órgano competente:

a) Solicitud suscrita por el órgano competente de la entidad local en la que conste la aprobación de la realización de la actuación para la que se solicita subvención y de la aportación municipal para su financiación.

b) Certificado expedido por el órgano competente de la entidad local, en el que se haga constar si se ha solicitado o, en su caso, obtenido, o no, subvenciones, ayudas o ingresos para la misma finalidad, así como su cuantía.

c) Certificado expedido por el órgano competente de la entidad local, en el que conste que la entidad local no incurre en ninguna prohibición o en sanción que conlleve la imposibilidad de obtención de subvención o ayuda pública, incluida la establecida en la Disposición Final Sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

d) Documento acreditativo de la aprobación en pleno municipal del Plan de Acción de Agenda Local 21.

e) Presupuesto desglosado, diferenciando entre ingresos y gastos.

f) Memoria explicativa, que contendrá como mínimo:

– Título de la actuación.

– Jarduketaren zehaztasunak.

– Garraiobide publikoekiko intermodalitatea errazten duten edo-eta batez ere nahitaezko mugikortasunerako balio duten (garraio-eskaria eragiten duten guneetara, lantegi, ikastetxe eta enparauetarako) bizikleta-bideak direla justifikatu beharko da.

– Tokiko Ekintzen Planaren barruan ze linea eta programatan sartzen den.

– Toki erakundearen barruan zeinek duen hori eraiki eta jarraipena egiteko ardura.

– Gauzatzeko epea, aldiak (alditan banatu bada) eta lehentasuna.

– Ekintzaren egoera (hasita, hastear, aurreratuta edo bukatuxea).

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari Garraio Zuzendaritzak, aurkeztutako eskabidea behar bezala balioesteko beharrezko jotzen duen beste edozein agiri edo argibide eskatu ahal izango du.

4. artikulua.– Kudeaketa-organoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari Garraio Zuzendaritzaren ardura izango da Agindu honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lanak egitea.

5. artikulua.– Agiriaren gaineko okerrak zuzentzea.

Eskatzaileak aurkezturiko agiriak Agindu honetan eskatutako baldintzak ez dituztela betetzen ikusiz gero, hala jakinaraziko dio organo kudeatzaileak eskatzaileari, eta hamar egun baliouduneko epea utziko dio, okerrak zuzendu edo behar diren agiriak aurkezteko; gainera, adieraziko dio, hala egiten ez badu, bere eskaria besterik gabe atzera botako duela, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 42. artikulua ezarritako eran (Lege horrek Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuen).

6. artikulua.– Laguntzen izaera, zenbatekoa, eta kalkulatzeko eta emateko prozedura.

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak bizikleta-bideak eraikitze proiektuen idazketaren edo-eta gauzatzeko obren BEZik gabeko kostu osoaren % 75 ordaintzeko izango dira, eta ez da itzuli beharrik izango. Onuradun bakoitzari gehienez ere 200.000 euroko emango zaizkio.

Dirulaguntza eraikuntza-proiektua idazteko bada, laguntza hori bizikleta-bidea eraikitze baldintzarekin emango da, eta dirulaguntza jaso ondoren gehienez ere bi urteko epea izango du entitateak bide hori eraikitze-ko.

– Definición de la actuación.

– Justificación de tratarse de actuaciones facilitadoras de la intermodalidad respecto de los distintos modos de transporte público y/o que sirvan principalmente para atender la movilidad obligada (focos generadores de demanda tales como centros de trabajo, centros educativos, etc.).

– Línea, programa a la que pertenece dentro del Plan de Acción Local.

– Responsable de ejecución y seguimiento de la acción dentro de la entidad local.

– Plazo de ejecución, periodicidad (si procede), prioridad.

– Estado de la actuación (iniciada, pendiente de inicio, avanzada, finalizando).

4.– La Dirección de Transportes de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco podrá solicitar cualquier otra documentación o información complementaria que considere necesaria para la adecuada evaluación de la solicitud presentada.

Artículo 4.– Órgano de gestión.

Corresponderá a la Dirección de Transportes de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en la presente Orden.

Artículo 5.– Subsanción de documentación.

Si el órgano gestor de las ayudas observase que la documentación aportada por la persona solicitante no reúne los requisitos exigibles conforme a la presente Orden, lo pondrá en su conocimiento y le concederá un plazo de diez días hábiles al objeto de que subsane las faltas o acompañe la documentación preceptiva con la indicación de que, si no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley 4/1999, de 13 de enero, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 6.– Naturaleza, cuantía y procedimiento de cálculo y concesión de las ayudas.

1.– Las ayudas contempladas en la presente Orden consistirán en el abono de una subvención no reintegrable correspondiente al 75% del costo global, IVA no incluido, de la redacción y/o la ejecución del proyecto de construcción de carriles-bici, con un límite máximo de 200.000 euros por beneficiario.

En el supuesto de subvención a la redacción de proyectos de construcción, la ayuda quedará condicionada a la efectiva materialización de los carriles-bici a que hacen referencia los citados proyectos, que deberá realizarse en un plazo máximo de dos años desde el abono de la subvención.

Dirulaguntza proiektua idazteko eta bizikleta-bidea eraikitzeke bada, bizikleta-bidea eraikitzen ez bada, bi dirulaguntzak galduko dira, bai bizikleta-bidea eraikitzeke zena, bai proiektua idaztekoa.

2.- Agindu honetan arautako laguntzak emateko 1.2 artikuluan ezarritako diru-kopurua aski ez bada aurkeztutako eskabide guztiei artikulua honen lehenengo atalean ezarritako gehieneko diru-kopuruak ordaintzeko, ondoren zehaztuko den hurrenkera honi jarraituz emango zaie laguntza, baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei:

a) Garraiobide publikoekiko intermodalitatea errazten duten edo-eta batez ere nahitaezko mugikortasunerako balio duten (garraio-eskaria eragiten duten gunetara, lantegi, ikastetxe eta enparauetarako) bizikleta-bideak eraikitzeke proiektuak idazteko edo gauzatzeko eskaerei emango zaie lehentasuna.

b) Aurreko atalean zehaztutako eskaera horiei erantzun ondoren, dirurik badago, bestelako bizikleta-bide batzuk eraikitzeke proiektuak idazteko edo-eta gauzatzeko eskaerak hartuko dira kontuan.

Adierazitako lehentasun-hurrenkera horren arabera, dirua aski ez bada aurreko atalen batean aurkeztutako eskabide guztiei erantzuteko, nahikoa diru izanez gero, diru kopuru osoarekiko ehuneko zenbat legokiekeen kontuan hartu, eta ehuneko horri berari eutsiz banatu ko da dagoen dirua.

3.- Azkenean benetako gastua aurrekontuan aurkeztutakoa eta dirulaguntzari buruzko erabakia hartzeko kontuan izandakoa baino txikiagoa bada, dirulaguntza ere proportzio berean txikituko da, eta dirulaguntzaren ehuneko oinarri berriarekin kalkulatu da, dirulaguntza emateko ebazpena aldarazteko ebazpenaren bidez.

7. artikulua.– Bateragarritasuna.

Agindu honen arabera emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste pertsona fisiko edo-eta juridiko batzuek helburu bererako emandako beste laguntza batzuekin, baina guztira jasotako diru-kopuruak ezin izango du laguntzekoa den jarduketaren kostua gainditu.

Helburu bererako beste laguntza edo dirulaguntza batzuk lortzen badira, eta horren ondorioz dirulaguntzek proiektuaren kostua gainditzen badute, Agindu honi esker emandako dirulaguntza gutxitu egingo da, ezarritakoa betetzeko moduan.

8. artikulua.– Dirulaguntza eman, jakinarazi eta argitaratzea.

1.- Dirulaguntzak emateko ebazpena urtarilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatutako azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 58. artikuluan ezarritakoari jarraituz

En el supuesto de subvención conjunta a la redacción de proyectos y construcción de carriles-bici, la inejecución de estos últimos determinará, además de la pérdida de la subvención a ellas correspondiente, la referida a aquél.

2.- En el supuesto de que con la dotación económica asignada a la financiación de las ayudas convocadas a que se refiere el apartado segundo del artículo 1 de la presente Orden no alcanzase para atender en los importes máximos señalados en el apartado 1 de este artículo a la totalidad de las solicitudes presentadas que cumplan los requisitos exigidos, se seguirá en el otorgamiento de las ayudas el siguiente orden de prelación.

a) Se atenderá en primer lugar a las solicitudes relativas a la redacción y/o ejecución de proyectos de construcción de carriles-bici facilitadores de la intermodalidad respecto de los distintos modos de transporte público y/o que sirvan principalmente para atender la movilidad obligada (focos generadores de demanda tales como centros de trabajo, centros educativos, etc.).

b) Una vez atendidas todas las solicitudes correspondientes al apartado anterior, si existiera saldo disponible, se atenderá a las solicitudes relativas a la redacción y/o ejecución de otros proyectos de construcción de carriles-bici.

Si en seguimiento del orden de prelación expresado anteriormente el montante de la dotación disponible no alcanzase para atender a todas las solicitudes presentadas en alguno de los apartados indicados, se procederá a repartir su montante entre ellas en proporción a la cuantía máxima que les hubiera correspondido de existir saldo bastante.

3.- En el caso de que el coste definitivo real del gasto fuera inferior al presupuesto presentado en la solicitud, sobre el que se concedió la ayuda, la cuantía de la subvención concedida será minorada en la proporción que resulte, aplicándose entonces el porcentaje de la subvención sobre la nueva base, previa resolución de modificación de la resolución de otorgamiento.

Artículo 7.– Compatibilidad.

Las subvenciones otorgadas con arreglo a lo dispuesto en la presente Orden serán compatibles con otras que para el mismo fin pudieran otorgar otras personas físicas y/o jurídicas, sin que en ningún caso el importe global recibido pueda superar el coste de la actuación subvencionable.

En caso de que como consecuencia de la concurrencia de otras ayudas o subvenciones se superase el indicado coste, se procederá a la minoración de la ayuda concedida al amparo de la presente Orden en la cuantía correspondiente.

Artículo 8.– Otorgamiento, notificación y publicidad.

1.- El otorgamiento de las subvenciones, que se notificará individualmente a las entidades interesadas en la forma establecida en el artículo 58 de la Ley 30/1992, de

bakarka jakinaraziko zaie erakunde interesdunei. Aginduak ondorioak sortu, eta sei hilabeteko epean egingo da jakinarazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Garraio zuzendariaren ebazpenaren bidez. Ebazpen horrek ez du administrazio-bidea amaituko, eta, beraz, hilabeteko epean gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio bereko Garraio eta Herri Lan sailburuordeari.

Ebazpenean dirulaguntza eman ala ukatu egiten den adierazi beharko da. Dirulaguntza emateko bada, entitate onuraduna, diruz laguntzekoa den proiektua, inbertsioaren zenbatekoa, proiektua burutzeko epea eta dirulaguntza urteetan nola banatuko den adierazi beharko da. Dirulaguntza ukatzeko bada, horren arrazoiak azalduko beharko dira.

2.— Sei hilabeteko epean ez bada dirulaguntza emateko berariazko ebazpenik eman, interesdunek ezetsitzat jo beharko dute eskabidea, urtarilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

3.— Interesdunei zuzenean jakinarazteaz gainera, jende orok jakin dezan Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da onuradunen zerrenda, finantzaturiko proiektu eta emandako dirulaguntzekin.

4.— Agindu honetan aurreikusten ez diren kontuetan, dirulaguntzak emateko prozedurarako urtarilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua bete beharko dira.

9. artikulua.— Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa aldatzea.

1.— Azkenean jarduketaren benetako kostua dirulaguntzari buruzko erabakia hartzeko kontuan izandako aurrekontukoa baino txikiagoa bada, dirulaguntza ere proportzio berean txikituko da, eta dirulaguntzaren ehunekoa oinarri berriarekin kalkulatu da.

2.— Aitzitik, hasierako aurrekontuak gora egiten badu, igoera hori prozeduran jasoko bada, ebazpen-proposamena egin aurretik egin beharko da. Gora egin duen aurrekontua ebazpen-proposamena egin ondoren aurkeztzen bada, ez da kontuan izango dirulaguntza handiagoa emateko, eta hurrengo artikuluan jasotako ondorioetarako baino ez da aintzat hartuko.

26 de noviembre, modificada por Ley 4/1999, de 13 de enero y en el plazo de seis meses desde que surta efectos la presente Orden, se realizará mediante resolución de la Directora de Transportes de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que no agotará la vía administrativa y contra la que podrá interponerse recurso de alzada ante el Viceconsejero de Transportes y Obras Públicas de la citada Administración, en el plazo de un mes.

La resolución determinará la concesión y, en su caso, la denegación de las subvenciones solicitadas, expresando en el caso de las primeras, la entidad beneficiaria, el proyecto subvencionado, importe de la inversión y el plazo de ejecución previstos así como el importe de la subvención concedida con su distribución por anualidades, expresando para las denegadas los motivos que fundamenten la denegación.

2.— En el supuesto de no notificarse resolución expresa de adjudicación de las ayudas dentro del plazo de seis meses, las personas interesadas podrán entender desestimadas sus solicitudes a los efectos previstos en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

3.— Sin perjuicio de la notificación a los interesados y a efectos de general conocimiento, se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco, la relación de entidades beneficiarias, proyectos financiados e importes concedidos.

4.— En lo no previsto expresamente en la presente Orden, el procedimiento para el otorgamiento de las subvenciones se regirá por lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero, así como en el Decreto Legislativo 1/1997 de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

Artículo 9.— Modificación de la cuantía de la ayuda concedida.

1.— En el caso de que el coste definitivo real de la actuación fuera inferior al presupuesto sobre el que se concedió la ayuda, la cuantía de la subvención concedida será minorada en la proporción que resulte, aplicándose entonces el porcentaje de la subvención sobre la nueva base.

2.— Si, por el contrario, el presupuesto inicialmente presentado se modificara al alza, sólo se podrá incorporar al procedimiento antes de que éste se halle en fase de propuesta de resolución. La presentación posterior de un presupuesto rectificado al alza para tener en cuenta los aumentos en los costos de la actuación, no supondrá el incremento de la ayuda concedida, y sólo se tendrá en consideración a los efectos del artículo siguiente.

10. artikulua.– Proiektuetako aldaketak.

1.– Hasieran aurreikusitako eta ebazpen bidez onartutako gastu edo jarduketetan aldaketarik egin nahiz izanez gero, horri buruzko eskaera egin beharko da aldaketa gauzatu aurretik, eta Garraio zuzendariaren berariazko onarpena beharko da.

2.– Aldaketak ez du, inola ere, eraginik izango jarduketaren izaeran.

3.– Diruz lagundutako jarduketa egin eta bukatzeko epeari dagokionean, onuradunaren esku ez dauden eta behar bezala egiaztatutako arrazoirik bada, eta epea bukatu baino lehen eskatu bazaio, Garraio zuzendariak, berariazko ebazpenaren bidez, epea luza dezake, baina inola ere ez 2009ko abenduaren 31tik haratago.

4.– Dirulaguntzaren onuradunak justifikazioan aditzera ematen badu aldaketak egon direla laguntza emateko unean kontuan edukitako baldintzetan, eta aldaketa horiek laguntza emateko ebazpena bera alda dezaketela, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriagazuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 49.12. artikuluari jarraiki, onartu aurreko administrazio-baimenaren tramitea alde batera utzi eta organo emaileak justifikazio hori onar dezake, baldin eta ez bada kalterik sortzen hirugarrenentzat.

5.– Egiaztatze-ekintzan organo emaileak aldaketak onartzeak ez du onuraduna salbuesten legozkiokeen bestelako zigorretatik.

11. artikulua.– Justifikazioa eta ordainketa.

1.– Dirulaguntza honela ordainduko da:

a) Proiektuak idazteko laguntzei dagokienean, ordainketaldi bakar batean ordainduko da dena, diruz laguntzekoa den proiektua egiteko faktura eta bestelako frogagiri guztiak, jatorrizkoak edo kopia egiaztatuak, aurkeztu ondoren. Agiri horiek guztiek 2008koak behar dute izan.

b) Eraikuntza-proiektuak gauzatzeari dagokionean, zatika ordainduko da, gastua egin dela egiaztatzeko onuradunak onartutako ziurtagiri, faktura edo bestelako frogagiriak aurkeztu ondoren, harik eta diruz laguntzekoa den muga erdietsi arte. Proiektuak 2008. urtearen barruan hasi beharko dira.

Dirulaguntza zatika ordainduko da, hiru hilabetetik behin, eta aldiko zenbat ordaindu jakiteko, dirulaguntzak, guztira, onartutako inbertsioarekiko zenbateko ehunekoa hartzen duen, proportzio hori bera aplikatuko zaio kasuan kasuan justifikatutako gastuari.

Aurreko idatz-zatian laguntza ordaintzeko aurreikusitako era baztertu gabe, gastu guztia 2008an egiaztatzen bada, dena batera ordaindu ahal izango zaio.

Artículo 10.– Modificación de los proyectos.

1.– Cualquier modificación que se quiera realizar respecto de los gastos o actuaciones inicialmente previstas y aprobadas mediante la resolución, deberá ser solicitada previamente a su realización y requerirá la aceptación expresa de la Directora de Transportes.

2.– En ningún caso la modificación podrá afectar a la naturaleza de la actuación.

3.– En relación con el plazo de realización y finalización de la actuación subvencionada, cuando concurren causas ajenas a la voluntad de la entidad beneficiaria debidamente justificadas, previa solicitud escrita efectuada con anterioridad al vencimiento del plazo de ejecución establecido, la Directora de Transportes podrá, en Resolución dictada al efecto, conceder una ampliación del mismo que en ningún caso podrá rebasar el 31 de diciembre de 2009.

4.– Cuando el beneficiario de la subvención ponga de manifiesto en la justificación que se han producido alteraciones de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la misma que hubieran podido dar lugar a la modificación de la resolución, conforme a lo establecido en el artículo 49.12 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General País Vasco, habiéndose omitido el trámite de autorización administrativa previa para su aprobación, el órgano concedente, podrá aceptar la justificación presentada, siempre y cuando no se dañen derechos de tercero.

5.– La aceptación de las alteraciones por parte del órgano concedente en el acto de comprobación, no exime al beneficiario, de las sanciones que pudieran corresponderle.

Artículo 11.– Justificación y pago.

1.– El pago de la ayuda concedida se realizará:

a) En el supuesto de redacción de proyectos, mediante un único pago una vez redactado el proyecto, previa la presentación de original o fotocopia compulsada de las facturas u otros justificantes de pago que acrediten la efectiva realización del gasto subvencionado, que deberán corresponder al ejercicio 2008.

b) En el supuesto de ejecución de proyectos de construcción, el pago se efectuará fraccionadamente previa justificación de haber realizado el gasto presentando las correspondientes certificaciones, facturas u otros justificantes acreditativos de su efectiva realización y costo, aprobados por el beneficiario, hasta alcanzar el límite de la subvención. Los proyectos deberán iniciarse en el ejercicio 2008.

El importe de los libramientos parciales se realizará trimestralmente y será equivalente, respecto del gasto justificado, al porcentaje que represente la subvención concedida en relación con la inversión aprobada.

Sin perjuicio del régimen de abono de la ayuda previsto en el apartado anterior, si se justificare la totalidad del gasto durante el ejercicio 2008, el abono de la ayuda podrá efectuarse de una sola vez.

2.– Diruz lagundutako jarduketa bukatu eta hiru hilabeteko epean, eta, edonola ere, 2010eko martxoaren 31 baino lehen, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu onuradunak:

a) Toki-erakundeko organo eskudunak egindako ziurtagiria, dirulaguntzaren xedea bete dela adierazten duena.

b) Diru-sarreraren eta gastuen zerrenda, eta helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza edo diru-sarrerarik jaso bada, horren berri ematen duena.

12. artikulua.– Dirulaguntza jasotzen dutenen betebeharrak.

1.– Agindu honetan azaltzen diren dirulaguntzak eskuratzen dituztenek honako betebeharrak izango dituzte kasu guztietan:

a) Dirulaguntza eskuratzeko beharrezko diren eskakizun eta baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatu beharko diote dirulaguntza eman behar duen Administrazioari. Alde horretatik, dirulaguntza eman zaiola jakinarazten zaionean artean hasi gabe badaude, diruz laguntzekoa den jarduketari bi hilabeteko epean ekin beharko zaio, eta, nolana ere, 2008. urtearen barruan.

b) Emandako dirulaguntza onartu beharko dute. Dirulaguntzaren berri ematen dien jakinarazpena jaso, eta hamabost eguneko epean onuradunek idatziz uko egiten ez badiote, onartu egiten dutela ulertuko da.

c) Dirulaguntza, eman zaion horretarako erabili beharko du.

d) Helburu bererako beste laguntza edo dirulaguntzaren bat lortu badu, lortu duela eta nork eta zenbat eman dion jakinarazi beharko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari.

e) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, beren eginkizunetan dihardutela, deialdi honen kontura jasotako dirulaguntzen inguruan eskatzen dieten informazioa ematea.

f) Garraio eta Herri Lan Sailaren babesaren aipamen bat sartu behar dute egiten dituzten agiri, kartel eta iragarkietan eta publizitate guztian, eta Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburuan ezarritakoaren arabera sartuko da aipamena (http://www.euskadi.net/id_corporativa/indice_e.htm).

g) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esparruan ezaugarri bereko dirulaguntzei aplikatu dakizkiekeen gainerako arauak.

2.– Artikulu honen 1.e puntuan adierazitako organoen ahalmena gora-behera, Euskal Autonomia Erki-

2.– Dentro de los tres meses siguientes a la finalización de la actuación subvencionada, y, en todo caso, con anterioridad al 31 de marzo de 2010, el beneficiario deberá remitir los documentos siguientes:

a) Certificación expedida por el órgano competente de la entidad local, en el que conste el cumplimiento del objeto de la subvención concedida.

b) Relación de ingresos y gastos, especificando, en su caso, la percepción de otras subvenciones, ayudas o ingresos para la misma finalidad.

Artículo 12.– Obligaciones de la persona beneficiaria.

1.– Las personas beneficiarias de las subvenciones reguladas en la presente Orden deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Acreditación ante la Administración concedente del cumplimiento de los requisitos y condiciones que determinen la concesión de la subvención y del mantenimiento de los mismos. En tal sentido, deberá iniciar, si no lo estuviera al momento de ser notificada la concesión de la subvención, la ejecución de los proyectos de instalación objeto de ayuda en un plazo máximo de dos meses a partir de la misma, y en todo caso, dentro del ejercicio 2008.

b) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de las subvenciones, las beneficiarias no renuncian expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

c) Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida.

d) Comunicar a la Dirección de Transportes de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la obtención, órgano concedente y cuantía de cualesquiera otras subvenciones o ayudas otorgadas para el mismo fin.

e) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a esta convocatoria.

f) Incluir una mención al patrocinio del Departamento de Transportes y Obras Públicas en los documentos, carteles identificativos y anuncios que se elaboren, así como en cuanto publicidad se realice, que se insertará conforme a lo dispuesto en el Manual de Identidad Corporativa del Gobierno Vasco (http://www.euskadi.net/id_corporativa/indice_c.htm).

g) Las demás preceptivas que sean de aplicación a las subvenciones de las características de la presente, concedidas en el ámbito de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– Sin perjuicio de las atribuciones de los órganos señalados en el punto 1.e) de este artículo, el Departamento de Transportes y Obras Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la obtención, órgano concedente y cuantía de cualesquiera otras subvenciones o ayudas otorgadas para el mismo fin.

degoko Administrazioari Garraio eta Herri Lan Sailak dirulaguntza jaso duen jarduerari buruz bidezko jotzen dituen egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu.

13. artikulua.— Dirulaguntzak emateko baldintzak aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako egoeraren bat aldatuz gero, onuradunak beste administrazio batzuek edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandako laguntza edo dirulaguntzak jasotzen baditu batera edo eta helburu bererako bestelako diru-sarrera edo baliabiderik eskuratzen badu, dirulaguntza emateko agindua ere aldatu egin ahal izango da, betiere deialdi honetan onuradun izateko ezarritako gutxieneko eskakizunak betetzen jarraitzen badu.

14. artikulua.— Dirulaguntza itzultzea.

1.— Onuradunak Agindu honetan, dirulaguntza emateko Aginduan edo aplikatu beharreko gainontzeko arauetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badu, organo aginpidedunak, onuradunari entzun ondoren, laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat deklaratu du, eta, halakorik izanez gero, dagokion diru-kopurua Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzultzeraz behartuko du, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermei eta horiek itzultzeaz buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak, eta dirulaguntzetarako betebeharrak betetzen direla zaintzeko gainontzeko arauak ezarritakoa betetzeko. Kopuru hori diru-sarrera publikotzat joko da legezkori ondo onartutarako. Horrek guztiak ez du galaraziko, ordea, bestelako zehapenak jartzeko, eta kalteengatik ordainak eta, halakorik izanez gero, erantzukizun penala ere eskatzea.

2.— Halaber, 7. artikuluan adierazitakoarekin bat etorritik, dirulaguntza hau beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin batera jasotzeko ezarritako muga gaindituz gero, itzuli egin beharko da muga horretatik gora jasotako diru-kopurua, dirulaguntzaren xede den jardueraren kostutik gora jasotako diru-kopurua, alegia.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Agindu honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Garraio eta Herri Lan sailburuari, hilabeteko epean, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Sailean, aipatutako aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, bi hilabeteko epean.

mento de Transportes y Obras Públicas de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco podrá realizar las comprobaciones que estime oportunas relativas a la actividad subvencionada.

Artículo 13.— Alteración de las condiciones de la subvención.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por otras administraciones o entes públicos o privados para la misma finalidad, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión de las subvenciones siempre que se salvaguarden los requisitos mínimos establecidos por la norma subvencional para ser beneficiaria de ésta.

Artículo 14.— Reintegro de las subvenciones.

1.— En el supuesto de que la persona beneficiaria de la subvención incumpliese cualquiera de las condiciones establecidas en la resolución de otorgamiento o en la presente Orden y demás normas de aplicación, por el órgano competente, previa audiencia de la persona interesada, se declarará la pérdida del derecho a la percepción de la ayuda y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco el importe que corresponda en cumplimiento del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, y el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y de las demás normas reguladoras del control de cumplimiento de las subvenciones. Las referidas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a los efectos legales pertinentes. Todo ello sin perjuicio de las posibles sanciones que puedan imponerse, así como de las indemnizaciones por daños y perjuicios que pudieran exigirse, y, en su caso, de la responsabilidad penal.

2.— Igualmente, procederá el reintegro del exceso obtenido sobre el coste de la actividad objeto de la presente subvención en el supuesto de que se rebase el límite de compatibilidad con otras ayudas o subvenciones, de acuerdo con lo señalado en el artículo 7.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Transportes y Obras Públicas, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

Bigarrenena.– Agindu honetan berariaz oharteman gabe gelditu diren kasu guztietan, Herri-Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretu bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen testu bateginean jasotako oharpenak dira ezargarri.

Hirugarrena.– Agindu honek ondorioak izango ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko uztailaren 29a.

Garraio eta Herri Lan sailburua,
NURIA LÓPEZ DE GUEREÑU ANSOLA.

Segunda.– En todo aquello no previsto expresamente en la presente Orden serán de aplicación las previsiones contenidas en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y en el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre.

Tercera.– La presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de julio de 2008.

La Consejera de Transportes y Obras Públicas,
NURIA LÓPEZ DE GUEREÑU ANSOLA.

ERANSKINA

I.– Bizikleta-bideak eraikitzeke laguntzetarako eskabide-eredua.

Erakundearen izena: IFZ/IFK:

Lehen abizena: Bigarren abizena:

Izena: NANA:

Helbidea:

Udalerrria: Posta-kodea:

Telefonoa: Telekopia/faxa: Posta elektronikoa:

Diruz laguntzekoa den jarduketa:

- ☐ Proiektua idaztea
- ☐ Proiektua gauzatzea
- ☐ Proiektua idatzi eta gauzatzea

II.– Aurkeztutako agiriak (X bat jarri):

- ☐ a) Toki-erakundeko organo eskudunak sinatutako eskaera, diruz laguntzeko eskatzen den jarduketa egiteari buruzko erabakia eta toki-erakundeak jarduketa finantzatzeko zenbat jarriko duen jasotzen duena.
- ☐ b) Toki-erakundeko organo eskudunak egindako ziurtagiria, helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza edo diru-sarrerarik eskatu edo lortu den, eta, hala bada, zenbat jaso den, zehazten duena.
- ☐ c) Toki-erakundeko organo eskudunak egindako ziurtagiria, garbi adieraziko duena, entitate lokal horrek ez duela dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko debekurik, ez eta zigorrik, ez administratiborik ez penalik, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen Azken Xedapenetan Seigarrenean jasotako barne.
- ☐ d) Udalbatzak Toki Agenda 21eko Ekintza pLana onartu duela egiaztatzen duen agiria.
- ☐ e) Aurrekontu zehatza, diru-sarrera eta gastuen xehetasunak jasoko dituen.
- ☐ f) Azalpen-memoria

Eguna:

Sinadura:

ANEXO

I.– Modelo de solicitud de ayudas a la construcción de carriles-bici.

Denominación entidad: NIF/CIF:.....
Primer apellido: Segundo apellido:
Nombre: DNI:
Domicilio:
Población: Código postal:
Teléfono: Fax: Correo electrónico:

Actuación subvencionable:

- ☐ Redacción de proyecto
☐ Ejecución de proyecto
☐ Redacción y ejecución de proyecto

II.– Documentación que se acredita (marque con una x):

- ☐ a) Solicitud suscrita por el órgano competente de la entidad local en la que conste la aprobación de la realización de la actuación para la que se solicita subvención y de la aportación municipal para su financiación.
☐ b) Certificado expedido por el órgano competente de la entidad local, en el que se haga constar si se ha solicitado o, en su caso, obtenido subvenciones, ayudas o ingresos para la misma finalidad, así como su cuantía.
☐ c) Certificado expedido por el órgano competente de la entidad local, en el que conste que la entidad local no incurre en ninguna prohibición o en sanción administrativa o penal que conlleve la imposibilidad de obtención de subvención o ayuda pública, incluida la establecida en la Disposición Final Sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
☐ d) Documento acreditativo de la aprobación en pleno municipal del Plan de Acción de Agenda Local 21.
☐ e) Presupuesto desglosado, diferenciando entre ingresos y gastos.
☐ f) Memoria explicativa

Fecha:

Firma: